



MUNITIBARKO UDALA

ARBATZEGI - GERRIKAITZ

TFNO. 94 616 40 07

48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

ARTURO GABIOLA URRUTIKOETXEA, MUNITIBAR (ARBATZEGI-GERRIKAITZ)EKO UDALEKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK,

EGIAZTATZEN DUT:

Udal Batzar Osoak, bi mila eta hamaseiko irailaren hamalauan egindako Ohizko Bilkuran, beste batzuen artean, ondoko erabaki hau hartu zuela:

“4.- 2017. URTERAKO UDAL ORDENANTZEN ALDAKETA ONARTZEA.-

Ikusirik Lea Ibarreko Mankomunitateko zerbitzuak prestatutako udal ordenantzen egoerari buruzko txosten konparatua eta aurtengo udaleko ordenantzak azterturik.

Krisi Ekonomikoa ez amaitu arren, ordenantza batzuk aldatu behar dira, ondorengoak izanik:

- **Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza**, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauak eta Higiezinaren Foru Katastroa arautzen duen 3/2016 Foru Arauak xedatutakoetara egokitu behar delako; zerga tipoak aldatzen dira Diputazioak onartutako balioespen katastral berriak kontuan hartuz.
- **Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena**, indarrean dagoen ordenantza 1990. urtean onartutakoa baita, eta krisi ekonomikoa dela eta hobari batzuk eta errekargu bat martxan jarri behar direlakoan.
- **Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren J) EPIGRAFEA: UDAL HILERRIETAKO EMAKIDENGATIKO APROBETXAMENDUAK arautzen duena (nitxo berrien gastuak eraginda), eta K) EPIGRAFEA: LANDABIDEN APROBETXAMENDUARENA (garraio guztiak arautu eta fidantzak eta kuotak gaurkotasunera egokitzeko)**

Udalbatzak, aho-batez, (udalbatzar-kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa suposatzen duelarik), ondorengoa erabakitzen du:

Lehena. 2017. urterako onartzea, behin-behingoan, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskal berria, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena eta Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren J) eta K) epigrafeak.

Bigarrena. 2009ko urtarrilaren 1etik Udala hau Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartua dela eta, 2017. urterako Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onartutako ur horniduraren eta saneamenduaren gaineko tarifak eta araudiak bereganatzea.

Hirugarrena. Krisi ekonomikoa dela eta, gainontzeko ordenantza fiskaletan arautzen diren zergen eta tasen tarifak ez igotzea, 2017. urterako.



MYNITIBARKO UDALA

ARBATZEGI - GERRIKAITZ

TFNO. 94 616 40 07

48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

Laugarrena. Toki Ogasunei buruzko Abenduaren 16ko 9/2005. Foru Arauaren 16. artikulua ezarritakoa eta baita apirilaren 2ko 85/7. Legearen 49 artikulua ezarritakoa betez, espedientea hogeita hamar egunez agirian egon dadila, inork erreklamaziorik balu, Udaltzaren aurrean aurkez dezan. Epe hori iragarkiak Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen diren biharamunetik hasiko da kontatzen.

Bosgarrena. Espedientea agirian dagoen artean erreklamaziorik agertuko ez balitz, akordioa behin betikoz onartuta geratuko da. Ordenantzen testu osoa "Bizkaiko Egunkari Ofizialean" argitaratuko da.

Seigarrena. Onartutako ordenantzak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira indarrean edo behin betiko onarpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta espresuki aldatuak edo indargabetuak izan arte, indarrean iraungo dute."

- ROFRJeko 206. artikuluan xedatutakoarekin batera jakinarazten da akordu honen zertifikazioa akordua agertzen den aktaren onarpena egin baino lehen luzatzen dela. Eta hala ager dadin eta egoki diren ondorioak izan ditzan, egiaztapen hau egiten dut, Alkate Lehendakariaren oneritziz, Munitibarren bi mila eta hamaseiko urriaren hamaikan.

ONERITZIA
ALKATEAK,

